



GIPUZKOA




ETA EUROPAR BATASUNA

26. HILABETEKO IRUZKINA

> 2011ko Azaroa



GIPUZKOA



EUROPAKO KOHESIO POLITIKA BERRIA 2014-2020: EGEF ETA EGIF

Europako Batzordeak, **2014-2020 Finantza Esparrurako** proposamenean, landa-kohesio eta -garapeneko politikei eta itsas eta arrantza-politikei funtsezko elementu gisa eustea erabaki du, eta erabakigarritzat jotzen ditu **Europa 2020 Estrategiaren** helburuak lortzeko.

Hala, joan den urriaren hasieran, Europako Batzordeak 2014-2020 aldian aplikatu beharreko kohesio-politikari buruzko lege sorta berria onartu zuen.



Onartutako lege-esparru berri hau Europan datozen sei urteetan, 2014tik aurrera, hazkundera eta enplegua bultzatzeko da, Europar Batasuneko inbertsioak Europa 2020 Estrategian definitutako helburuetara bideratzeko.

Bere kohesio-politikako jarduna Europa 2020 Estrategiaren hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzaile bateko lehentasunetan biltzearekin batera, badira beste aldaketa garrantzitsu batzuk, hala nola "eraginkortasun-bonusak" sartzea proposatutako xedeetara gehien hurbiltzen diren eskualdeak saritzeko, programazio integratuari laguntza gehiago ematea eta proiektuak gehiago egotea emaitzei begira, lortutako aurrerapenen jarraipen zorrotzagoa eginez. Eta hori guztia lurralde-kohesioa indartuta eta funtsen arauak sinplifikatuta eta harmonizatuta.

Proposatutako Erregelamenduak eskualde-kategoria berri bat sortzen du, trantsizioko eskualdeak (EB-27ren batez bestekoaren % 75 eta % 90 arteko per capita BPG dutenak), azken urteetan lehiakortasuna irabazi baina oraindik berariazko laguntza behar duten eskualdeen trantsizioa errazteko. Eskualde-kategoria berri honetan 51 eskualde eta 72 milioi pertsonatik gorako biztanleria daude guztira.

2014-2020 finantza-esparruari jarraituz, egitura-politikarako proposatutako guztizko aurrekontua **376.000 milioio** da, Europa Konektatu, energia, garraio eta informazioaren teknologien arloko mugaz haraindiko proiektuak hobetzeko diseinatutako proiekturako finantzaketa barne.

Batzordearen proposamenak Europako Gizarte Funtseko (EGIF) eskualde-kategoria bakoitzera zuzendutako kuota minimoak ezartzen ditu, Europa 2020 Estrategiaren helburu nagusiak lortzeko funtsen kontribuzioak hobetzeko. Kuota horiek aplikatzean kohesio-politikari esleitutako aurrekontuaren % 25eko kuota orokor minimo bat sortuko da EGIFentzat, hots, **84.000 milioi euro** ("Europa Konektatu" proiektura zuzendutako kontu-saila kontuan izan gabe), eta horrek esan nahi du EGEFek **183.300 milioi euro** dituela gehienez 2014-2020 aldirako.





2014-2020rako proposatutako aurrekontua Milaka milioi EURO

(2011ko prezio konstanteetan)

2014-2020rako proposatutako aurrekontua	Milioi EURO	EGIFen kuota minimoa	EGIFen ondoriozko zenbateko minimoa Milioi EURO
Gutxiago garatutako eskualdeak	162.600	25%	40.700
Trantsizioko eskualdeak	38.900	40%	15.600
Eskualde garatuagoak	53.100	52%	27.600
Lurralde-lankidetzak	11.700	--	--
Kohesio-funtsa	68.700	--	--
Eskualde periferiko eta biztanleria urrikoen aldeko esleipen gehigarria	926	--	--
“Europa Konektatu” (garraioa, energia eta IKT)	40.000*		

* 40.000 milioi EURO (kohesio-funtsean erreserbatutako beste 10.000 milioi gehitu behar dira)
 Iturria: Eustat

Funts-ezarpen horrekin batera, Europako Batzordeak arau orokorren erregelamendu berri bat onartu du, 2014-2020 aldirako egiturazko politikak finantzatzeko **tresna** guztiak barne hartzen dituena.

Erregelamendu berri horrek Europar Batasunaren kohesiorako bost funtsetarako (hots, EGEF, EGIF, Kohesio Funtsa, LGENF eta EMFF) xedapen eta printzipio orokor batzuk ezartzen ditu, eta horien artean hauek nabarmentzen dira: parte-hartzeak eta maila anitzeko gobernantza, arau europarren eta legeria nazionalaren mende egotea, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, diskriminaziorik eza eta garapen iraunkorra sustatzea.



Erregelamenduak plangintza estrategikoa eta proiektuen programazioa egiteko elementu komunak, hautakortasun-irizpideen, finantza-tresna erabilgarrien eta horiek kudeatzeko eta kontrolatzeko tresnen zirriborroa ere egiten du. Era berean, Europa 2020 Estrategiari lotutako helburu tematikoak aurkeztu ditu, 2014-2020 programazioaren oinarri izango direnak.

Europako Batzordearen proposamena herrialde kideekin eta Europako Parlamentuarekin eztabaidatu behar da eta 2013an indarrean jartzea aurreikusten da.

Jarraian, Gipuzkoan gaituta dauden bi programetako aldaketarik garrantzitsuenak aurkeztuko dira: Eskualde Garapenerako Europako Funtsa **-EGEF-** eta Europako Gizarte Funtsa **-EGIF-**.



> Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF)



Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) helburua Europar Batasunean ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza indartzea da, eskualdeen artean *dauden* desorekak zuzenduz.

Batzordeak EGEFerako duen proposamenak 183.300 milioi euroko aurrekontuko kontu-sail bat ezartzen du 2014-2020 aldirako.

Europako Batzordeak egindako proposamenari jarraiki, eskualde europarrek Europa 2020 Estrategiarekin bat datozen helburu kopuru mugatu batean bildu beharko dute EGEFen laguntza, puntu hauetan arreta handiagoa jartzeko lehentasun xehatuak ezarriz:

- ikerketa eta garapena eta berrikuntza
- informazioaren eta komunikazioaren eskuragarritasuna eta kalitatea
- klima-aldaketa eta karbono gutxiko ekonomia baten aldeko bilakaera
- enpresei eta, zehazki, ETEei laguntzea
- interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak
- telekomunikazioak, energia eta garraio-azpiegiturak
- erakundeen ahalmena eta administrazio publikoa
- osasuna, hezkuntza eta gizarte-azpiegiturak
- hiri-garapen jasangarria

Proposatutako Erregelamenduak EGEFen esku-hartzeko esparrua zehazten du eta laguntza ezin lortu duten jardueren zerrenda negatibo bat ere definitzen du. Halaber, helburu tematiko bakoitzaren inbertsio-lehentasunak ezartzen ditu.

Trantsizioko eskualdeak eta eskualde garatuenean energia-eraginkortasunean eta energia berriztagarrietan, ETEen lehiakortasunean eta berrikuntzan erabili beharko dute beren diru-laguntzaren zati handiena; gutxienez beren baliabideen % 80, hain zuzen. Gutxiago garatutako eskualdeek beren diru-laguntzaren % 50 erabili beharko dute gutxienez jarduera sorta horretan.

EGEFek berriazko laguntzak izango ditu hirietarako eta hiri-garapenerako. Proposatutako Erregelamenduari jarraiki, funts batzuk (gutxienez % 5) erreserbatzen dira hiri-garapen integratu eta iraunkorreko neurrietarako eta hirien artean trukaketak sustatzeko hiri-garapeneko plataforma bat sortzeko.

Proposatutako Erregelamenduak finantzaketaren emaitzei begira egon nahi du eta, horretarako, finantzaketaren azken helburuari buruzko gauzatze fisikoei eta emaitzei dagokienez adierazle komunak prestatuko ditu.

Desabantaila natural edo demografiko larriak eta iraunkorrak dituzten eskualdeen berriazko arazoei programa eraginkorretan arreta berezia eskaintzeko premia ere aipatzen da.

Proposatutako Erregelamenduak eskualde ultraperiferikoentzat berriazko zuzkidura gehigarria erabiltzeko behar diren xedapenak biltzen ditu.



> Europako Gizarte Funtza (EGIF)




Europako Gizarte Funtza (EGIF) Europar Batasunaren finantza-tresna nagusia da pertsonetan inbertitzeko eta Europa 2020 Estrategiaren lehentasunekin, hala nola enpleguarekin, hezkuntzarekin eta gizarteratzearekin, ezin hobeto lerrotatua dago. EGIFek EB osoan garatzen dituen proiektuek praktikan jartzen dute hazkunderako estrategia europarra; izan ere, susperraldi ekonomikoa indartzen dute, kualifikazioa hobetzen dute, lanpostuak eta aukera berriak sortzen dituzte eta herritar askori pobreziatik irteten laguntzen diete.

2014-2020 aldirako proposamenean, Europako Batzordeak kohesio-politikari lotutako funtsei esleitutako guztiaren % 25eko proportzio minimo bat esleitzen dio EGIFi; guztira, 84.000 milioi euro.

Estatu kideek Europa 2020 Estrategiarekin bat datozen helburu eta inbertsio-lehentasan kopuru mugatu batean bildu beharko dute EGEFen finantzaketa, eragina handitzeko eta masa kritiko batera iristeko. Europako Batzordeak proposatutako Erregelamenduak lau helburu tematiko hauetan proposatu du Europako Gizarte Funtza erabiltzea:

- enplegua sustatzea eta lan-mugikortasunari laguntzea
- gizarteratzea sustatzea eta pobrezia aurka borrokatzea
- hezkuntza, trebetasunetan eta etengabeko ikaskuntzan inbertitzea
- erakundeen ahalmena hobetzea eta administrazio publiko eraginkorra



Gainera, EGIFek beste helburu tematiko batzuk lortzen ere lagundu behar du: adibidez, CO₂ gutxiago sortzen duen ekonomia baterako trantsizioa egiten laguntzea, baliabideen erabilera eraginkorra eta klima-aldaketara egokitua eginez; informazioaren eta komunikazioaren teknologia hobeto erabiltzea; teknologia eta berrikuntza garatzea eta ETEen lehiakortasuna hobetzea.

Europa 2020ren helburuak betetzeko behar diren baldintza nazionalak Batzordearen eta estatu kideen artean sinatutako elkarte-kontratuetan ezarriko dira. EGIFen inbertsioak Europa 2020ren helburuekin eta enpleguan, hezkuntzan eta pobrezia murrizteko arloan dituen konpromisoekin guztiz bat etorriko dira.

EBk hazkunde inklusiboarekin duen konpromisoaren ildotik, gutxienez EGIFen % 20 gizarteratzea sustatzeko eta pobrezia aurka borrokatzeko erabiliko da.

Estatu kideek EGIF, EGEF eta Kohesio Funtza «funtz anitzeko» programetan konbina ditzakete, koordinazioa lekuan bertan hobetzeko eta garapen integratua errazteko.

Baldintza berriak sartu dira (inbertsioaren eragina kontrolatzeko eta ebaluatzeko adierazleak) EGIFen funtsek Europa 2020ren helburuak lortzen benetan laguntzen dutela bermatzeko.

Gainera, Europako Gizarte Funtzaren erabilera errazteko, zehazki operadore txikientzat, erregelamendu-proiektuak kostu sinplifikatuen aukerak gehiago erabiltzea eta proiektu txikietan erabiltzea ere gomendatzen du, eta horrekin organo horien karga administratiboa % 50 murriztea lortu nahi da.

Azkenik, erregelamendu-proiektuak zenbait finantza-tresna ditu estatu kideek eta eskualdeek EGIFen eragin biderkatzailean jo dezaten eta horrela enpleguaren, hezkuntzaren eta gizarteratzearen aldeko neurriak finantzatzeko ahalmena handi dezaten.



> Informazio gehiago

EBko Kohesio Politika 2014 – 2020. Europa Batzordeko Proposamenak

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/documentos/Cohesion%20policy%202014-2020_presentation_eu.pdf

Cohesion Policy 2014 -2020. Investing in growth and jobs

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/regulation/pdf/2014/proposals/regulation2014_leaflet.pdf

Europe 2020 Estrategia

http://ec.europa.eu/europe2020/index_es.htm

